PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO HEZKUNTZA LANGILEEI BANAKAKO PRESTAKUNTZA IKASTAROAK EMATEA 2024-2025 IKASTURTEAN, HEZKUNTZAKO LANGILEEN PRESTAKUNTZA PLANAREN BARRUAN

PROZEDURA LEHIAKETA PUBLIKOA (004/24 Esp.)

Haurreskolak Partzuergoak uste du bere langileen etengabeko prestakuntza Haurreskolak eman nahi duen zerbitzuaren bermea dela, eta enplegagarritasuna hobetzen laguntzen duela. Haurreskolak Partzuergoaren Hitzarmen Kolektiboan 56. artikuluan jasota dagoenez, Partzuergoak uste du langileen prestakuntza iraunkorra dela Haurreskolak eman nahi duen zerbitzua bermatzen duen zerbait eta, horrez gain, enplegagarritasuna hobetzen laguntzeko modu bat ere bai. Langileak, berriz, behartuta daude zuzendaritzak ezarritako prestakuntza ekintzak probetxuz hartzera. Honetaz gain, 75/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, adierazten duenez, irakasleen (hezitzaileen) prestakuntzaren helburua da haurrari garapen pertsonal eta afektiboan eta konpetentzien garapenean laguntzeko behar den konpetentzia-profila lortzea, eta, horren bitartez, haurrari bere konpetentziak garatzen laguntzea dela.

Oinarrizko zereginak hobetzearekin lotutako hezkuntza-berrikuntzako esperientzien bidez, hezitzaileek beren profesionaltasunari eusten eta hezkuntza-funtzioari lotutako betebehar guztiei arreta ematen laguntzen dieten estrategiak bereganatzen dituzte.

Prestakuntza-planaren helburua da Haurreskoletako hezitzaileei beren lanbide-gaitasuna hobetzeko prestakuntza-jarduerak eskaintzea, baina bereziki azpimarratuz prestakuntza horrek zer nolako eragina izan behar duen haurreskolan egiten den lanaren hobekuntzan. Beraz, hezitzaileen prestakuntzaren helburua da beharrezko gaitasun-profila lortzea, haurrari gaitasun guztiak garatzen laguntzeko.

Prestakuntza praktikoa eskaini nahi da, hezitzaile bakoitzaren esperientziatik abiatuz eta haurreskolan kokatuz. Horregatik, prestakuntza-jarduera bakoitzean, parte hartzen duten hezitzaileek proiektu edo jarduera bat prestatu beharko dute prestakuntzaren barruan, ikasgelan edo haurreskolan aplikatzeko, eskuratutako ezagutzak praktikan jartzeko eta ikastetxean partekatzeko ekimenak. Prestakuntzak ikastetxeetan berrikuntza abian jartzen lagundu behar du.

Prestakuntza esperientziak trukatzeko tresna bihurtzen da, hezitzaileen topagune gisa ulertuta. Horrela, hezitzaileen ekarpenak eta esperientziak jaso, aitortu eta zabalduko dituen gune bihurtu nahi du.

1. KONTRATUAREN XEDEA

1.1. Haurreskolak Partzuergoko hezitzaileei zuzendutako banakako prestakuntza-ikastaroak ematea 2024-2025 ikasturtean, hezitzaileen prestakuntza-planaren barruan.

1.2. Enpresek eta erakundeek lote independenteak kontratatzea aukeratuko dute, eta lote bakoitzerako proposamen bereiziak aurkeztuko dituzte. Enpresa eta erakunde interesdunen eskaintza ekonomikoek ezingo dute gainditu lote bakoitzerako lizitazioaren gehieneko kostua.

1.3. 50 prestakuntza-ikastaro esleitu nahi dira, 3 lotetan banatuta. Aipatutako prestakuntza-eskaintzan Haurreskolak Partzuergoaren oinarriak eta beharrak kontuan hartu dira.

1.4. Ikastaroetan haur-hezkuntzarako garrantzitsuak diren hainbat gai jorratuko dira, ahal den heinean, honako hauek barne hartuta baina ez mugatuta:

- **Esplorazioa eta autonomia lehen haurtzaroan: jolasa eta bidelaguna**
  - 0-2 urteko haurren miaketa eta autonomia sustatzeko estrategiak.
  - Jolasak haurren garapenean duen garrantzia eta bidelagun izateko teknikak.
- **Komunikazioa eta emozioak Haurreskolan: Ingurune osasungarri baterako estrategiak**
  - Haurrekin, familiekin eta lankideekin eraginkortasunez komunikatzeko teknikak.
  - Emozioak kudeatzea eta Haurreskolan giro emozionalki osasungarria sortzea.
- **Haurreskolan aplika daitezkeen pedagogia berritzaileak aztertzen**
  - Lehen haurtzarora egokitutako pedagogia berritzaileak aztertzea eta aplikatzea.
  - Haurreskolan hezkuntza-kalitatea hobetzeko metodo eta praktika pedagogikoak.

1. lotea: Esplorazioa eta autonomia (25 ordu)

Ikastaro zenbakia	Izenburua	Orduak
1	"Esplorazioa eta autonomia lehen haurtzaroan: jolasa eta bidelaguna"	**25**
2	"Esplorazioa eta autonomia lehen haurtzaroan: jolasa eta bidelaguna"	**25**
3	"Esplorazioa eta autonomia lehen haurtzaroan: jolasa eta bidelaguna"	**25**
4	"Esplorazioa eta autonomia lehen haurtzaroan: jolasa eta bidelaguna"	**25**
5	"Esplorazioa eta autonomia lehen haurtzaroan: jolasa eta bidelaguna"	**25**
6	"Esplorazioa eta autonomia lehen haurtzaroan: jolasa eta bidelaguna"	**25**
7	"Esplorazioa eta autonomia lehen haurtzaroan: jolasa eta bidelaguna"	**25**
8	"Esplorazioa eta autonomia lehen haurtzaroan: jolasa eta bidelaguna"	**25**
9	"Esplorazioa eta autonomia lehen haurtzaroan: jolasa eta bidelaguna"	**25**
10	"Esplorazioa eta autonomia lehen haurtzaroan: jolasa eta bidelaguna"	**25**

11	"Esplorazioa eta autonomia lehen haurtzaroan: jolasa eta bidelaguna"	**25**
12	"Esplorazioa eta autonomia lehen haurtzaroan: jolasa eta bidelaguna"	**25**
13	"Esplorazioa eta autonomia lehen haurtzaroan: jolasa eta bidelaguna"	**25**
14	"Esplorazioa eta autonomia lehen haurtzaroan: jolasa eta bidelaguna"	**25**
15	"Esplorazioa eta autonomia lehen haurtzaroan: jolasa eta bidelaguna"	**25**
16	"Esplorazioa eta autonomia lehen haurtzaroan: jolasa eta bidelaguna"	**25**
17	"Esplorazioa eta autonomia lehen haurtzaroan: jolasa eta bidelaguna"	**25**

2. Lote: Komunikazioa eta harremanak (25 ordu)

Ikastaro zenbakia	Izenburua	Orduak
18	"Komunikazioa eta emozioak Haurreskolan: ingurune osasungarri baterako estrategiak"	**25**
19	"Komunikazioa eta emozioak Haurreskolan: ingurune osasungarri baterako estrategiak"	**25**
20	"Komunikazioa eta emozioak Haurreskolan: ingurune osasungarri baterako estrategiak"	**25**
21	"Komunikazioa eta emozioak Haurreskolan: ingurune osasungarri baterako estrategiak"	**25**
22	"Komunikazioa eta emozioak Haurreskolan: ingurune osasungarri baterako estrategiak"	**25**
23	"Komunikazioa eta emozioak Haurreskolan: ingurune osasungarri baterako estrategiak"	**25**
24	"Komunikazioa eta emozioak Haurreskolan: ingurune osasungarri baterako estrategiak"	**25**
25	"Komunikazioa eta emozioak Haurreskolan: ingurune osasungarri baterako estrategiak"	**25**
26	"Komunikazioa eta emozioak Haurreskolan: ingurune osasungarri baterako estrategiak"	**25**
27	"Komunikazioa eta emozioak Haurreskolan: ingurune osasungarri baterako estrategiak"	**25**
28	"Komunikazioa eta emozioak Haurreskolan: ingurune osasungarri baterako estrategiak"	**25**
29	"Komunikazioa eta emozioak Haurreskolan: ingurune osasungarri baterako estrategiak"	**25**
30	"Komunikazioa eta emozioak Haurreskolan: ingurune osasungarri baterako estrategiak"	**25**
31	"Komunikazioa eta emozioak Haurreskolan: ingurune osasungarri baterako estrategiak"	**25**
32	"Komunikazioa eta emozioak Haurreskolan: ingurune osasungarri baterako estrategiak"	**25**
33	"Komunikazioa eta emozioak Haurreskolan: ingurune osasungarri baterako estrategiak"	**25**

34	"Komunikazioa eta emozioak Haurreskolan: ingurune osasungarri baterako estrategiak"	**25**

3.Lotea: Pedagogia berritzaileak (25 ordu)

Ikastaro zenbakia	Izenburua	Orduak
35	"Haurreskolan aplika daitezkeen pedagogia berritzaileak esploratzen"	**25**
36	"Haurreskolan aplika daitezkeen pedagogia berritzaileak esploratzen"	**25**
37	"Haurreskolan aplika daitezkeen pedagogia berritzaileak esploratzen"	**25**
38	"Haurreskolan aplika daitezkeen pedagogia berritzaileak esploratzen"	**25**
39	"Haurreskolan aplika daitezkeen pedagogia berritzaileak esploratzen"	**25**
40	"Haurreskolan aplika daitezkeen pedagogia berritzaileak esploratzen"	**25**
41	"Haurreskolan aplika daitezkeen pedagogia berritzaileak esploratzen"	**25**
42	"Haurreskolan aplika daitezkeen pedagogia berritzaileak esploratzen"	**25**
43	"Haurreskolan aplika daitezkeen pedagogia berritzaileak esploratzen"	**25**
44	"Haurreskolan aplika daitezkeen pedagogia berritzaileak esploratzen"	**25**
45	"Haurreskolan aplika daitezkeen pedagogia berritzaileak esploratzen"	**25**
46	"Haurreskolan aplika daitezkeen pedagogia berritzaileak esploratzen"	**25**
47	"Haurreskolan aplika daitezkeen pedagogia berritzaileak esploratzen"	**25**
48	"Haurreskolan aplika daitezkeen pedagogia berritzaileak esploratzen"	**25**
49	"Haurreskolan aplika daitezkeen pedagogia berritzaileak esploratzen"	**25**
50	"Haurreskolan aplika daitezkeen pedagogia berritzaileak esploratzen"	**25**

Prestakuntza-proposamena egiteko, dokumentu honen amaieran eranskin gisa sartutako lote bakoitzaren fitxa hartuko da erreferentziatzat, eta esleipendunak hobetu ahal izango du.

2. MODALITATEAK, DATAK ETA MINTEGIAK EMATEKO HIZKUNTZAK

Prestakuntza-jarduerak Online modalitatean emango dira.

Ikastaroak 2024/2025 ikasturtean egingo dira, 2024ko abendutik 2025eko maiatzera bitartean.

Prestakuntza-plan hau euskara hutsean egin beharko da. Era berean, eta ahal den neurrian, erabiliko den materiala ere euskaraz izango da (idatzizko dokumentuak, bideoak…)

Loteak esleitu ondoren, ikastaro bakoitzaren hasierako eta amaierako behin betiko data zehatzak adostuko dira. Haurreskolak Partzuergoak ikastaro-datak aldatu ahal izango ditu antolaketa-beharrak direla eta.

Ikastaro guztiak osatzeko, parte hartzen duten hezitzaileek egindako jarduerari buruzko txosten edo memoria bat egingo dute, edo egindako prestakuntza-jarduerarekin lotutako proiektu bat, eskuratutako ezagutzak ikasgelan edo ikastetxean praktikan jartzeko sortua.

3. BALIABIDEAK

3.1. Esleipendunek kontratuaren xede diren ikastaroak egiteko behar diren baliabide materialak, giza baliabideak eta baliabide teknikoak izan beharko dituzte. Enpresak edo erakundeak beharrezko zerbitzu guztiak emateko behar diren azpiegitura eta ekipo materialak bermatuko ditu eta prestakuntza-jarduera hasi aurretik, ikastaroak emateaz arduratuko diren pertsonen curriculuma aurkeztuko dute.

3.2. Ikastaro bakoitzerako tutore bat egongo da, tutoretzak telematikoki egingo dituena plataforman eta posta elektronikoz.

3.3. Ikaskuntza-programak behar bezala funtziona dezan, eskaintzak aurkezten dituzten enpresa eta erakundeek honako puntu hauek hartuko dituzte kontuan:

- Enpresak e-learning plataforma teknologiko bat eskainiko du Internet bidez, web-zerbitzari batetik % 100 online banatzeko prestakuntza-edukiak hartzeko gai dena.
- Plataforma horrek elementu elkarreragileak izango ditu, ikasleari nabigazioa eta interaktibitatea errazteko, ikastaro bakoitzerako proposatutako unitate didaktikoen ikaskuntza erraza eta intuitiboa ahalbidetuz.
- Beharrezko gaitasun operatiboari eutsiko dio, ikastaroak dituen plazak adina ikasleri arreta eman ahal izateko.
- Interneteko nabigatzaile nagusietan behar bezala ikusteko aukera emango du: Internet Explorer, Mozilla Firefox eta Google Chrome
- Hainbat datu-baserentzat baliagarri izango da.(SQL Server, Oracle, PostgreSQL eta MySQL)
- Hainbat sistema eragilerekin lan egin ahalko da (Linux monoarekin, Windows 2003 Server edo goragokoa).
- Benetako lan-beharretara egokituta egongo da, eta ez du softwarearen eta hardwarearen instalazio osagarriren beharrik izango, une oro lan operatibo arina erraztuz.
- Plataforma horrek modulu estatistiko bat izan beharko du, prestakuntza-eskaintzaren kontrola eta jarraipena egiteko eta aktak egiteko.

4. PRESTAKUNTZA-JARDUERAREN HARTZAILEAK

Haurreskolak Partzuergoko haurreskolen sareko zentroetan lan egiten duten jarduneko hezitzaileak izango dira ikastaroen hartzaileak.

5. PRESTAKUNTZA ESKAINTZA ANTOLATZEA

5.1. Kontratuan jasotako prestakuntza-eskaintza, bere osotasunean, Haurreskolak Partzuergoko Formazioa eta Hezkuntza Laguntza Zerbitzuari dagokio antolatzea. Prestakuntza-eskaintzaren antolaketaren barruan sartzen da: deialdia/k egitea, matrikulazio-epeak finkatzea, onartuen zerrenda egitea, jardueren jarraipena egitea, jarduera bakoitzaren aktak sortzea eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari bidaltzea, dagozkion ziurtagiriak egin ditzan.

5.2. Haurreskolak Partzuergoko Formazioa eta Hezkuntza Laguntza Zerbitzuak ezartzen duen prestakuntza-eskaintzaren antolaketari jarraitu beharko diote enpresa edo erakunde esleipendunek, Partzuergoak prestakuntza-jardueren antolaketa- eta kudeaketa-irizpideei dagokienez zehazten dituen jarraibideak zintzo betez.

6. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOA

Administrazio-klausulen pleguan ezarritako irizpideak baloratzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dira, pleguetan deskribatutako ereduaren arabera.

a) Formulak aplikatuz automatikoki ebaluatzen diren irizpideen kasuan:
- Proposamen ekonomikoa
- Formulen bidez ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa

b) Formula bidez kuantifikatu ezin diren eta aplikatzeko balio-judizioa behar duten irizpideen kasuan:

- Prozedura publiko honetara aurkezten diren enpresek edo erakundeek beren eskaintzan, aurkezten diren lote bakoitzeko Prestakuntza-Plan Teknikoaren proposamena garatu beharko dute. Planak honako hauek jaso behar ditu:
    - Prestakuntza-ekintzaren proposamenaren edukia 0-2 urte bitarteko haurrei egokitua, egitura eta metodologia didaktikoa.
    - Prestakuntza-ekintzak hezitzaileengan eta haurreskolan duen eraginaren ebaluazioa

Balio-iritzien bidez ebalua daitezkeen irizpideak administrazio-klausulen 22.2 puntuan ezarritako irizpideen arabera baloratuko dira. Gutxienez 24 puntu lortu beharko dira prestakuntza-jardueraren programaren balorazioan.

7. ENPRESA EDO ERAKUNDE ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

Enpresa edo erakunde esleipendunek betebehar hauek izango dituzte:

7.1. Haurreskolak Partzuergoko Formazioa eta Hezkuntza Laguntza Zerbitzuari prestakuntza-ekintza bakoitzaren ondoriozko administrazio-kudeaketarako behar diren datuak eta dokumentazioa ematea, bai eta hezkuntza-langileen jarraipena eta ebaluazioa egiteko zeregin jakin batzuk egitea ere. Hala, erakundeak honako hauek egin beharko ditu:

a) Onartutako pertsonen bertaratze-kontrola eramatea eta Haurreskolak Partzuergoko Formazioa eta Hezkuntza Laguntza Zerbitzuari parte-hartzaileen bajen berri ematea, erreserba-zerrenda kudeatze aldera.

b) Parte hartzen duten hezitzaileak gai edo ez-gai kalifikatzea. Ondorio horietarako, erakundeak ezingo du gai jo jardueraren orduen % 80an gutxienez parte hartu ez duen parte-hartzailerik (bertaratze-faltaren % 20a justifikatu egin beharko da), ez eta jardueraren antolaketaren arabera, amaierako memoria edo dagokion proiektu, txosten edo memoriaren entrega partzialak ez baditu egin. Ezin izango da kalifikazioaren ondorengo aldaketarik egin, errorerik edo omisiorik izan ezean, eta, betiere, agiri bidezko justifikazio egokiarekin.

   Bertaratze-kontrola eredu baten bidez egingo da, eta eredu hori enpresa esleipendunari helaraziko zaio. Eredua bete ondoren, Formazio eta Hezkuntza Laguntza Zerbitzura bidaliko da.

c) Hartzaileek entregatu behar dituzten lanetan plagioak eta kopiak ekiditeko neurriak ezartzea.

7.2. Jarduera amaitu eta gehienez ere hilabeteko epean, erakundeak Haurreskolak Partzuergoko Formazioa eta Hezkuntza Laguntza Zerbitzuari kontratatutako jarduera bakoitzari dagokion dokumentazio hau bidaliko dio:

a) Jardueraren garapenari buruzko akta, honako hauek jasotzen dituena:

   - Jardueraren garapenaren balorazio orokorra.
   - Parte hartu duten hezitzaileen zerrenda, bertaratzearen, parte-hartzearen eta aprobetxamenduaren ehunekoa berariaz adierazita.
   - Gai edo gaitzat jotzen diren hezitzaileen zerrenda, Haurreskolak Partzuergoak emandako ereduaren bidez.

b) Ikastaroan erabilitako material didaktikoen kopia digitala: apunteak edo inprimatutako materiala, softwarea, aurkezpenak, ariketak eta jarduerak.

c) Jardueran parte hartu duten pertsona guztiek egindako lanen kopia bat.

Aztertu aurtengo ikasturtean izandako zailtasunak jasotako informazioarekin

7.3. Erakundeek antolatzen dituzten barneko ebaluazio-mekanismoak alde batera utzita, Haurreskolak Partzuergoko Formazioa eta Hezkuntza Laguntza Zerbitzuak ikastaroak ebaluatu ahal izango ditu.

7.4. Goian aipatutako eginkizun eta zereginetan, bai eta kontratuaren esparruan egindako materialetan ere, **euskararen erabilera bermatu beharko da**.

7.5. **Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorraren arloan indarrean dagoen araudia betetzea**.

8. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZAK

8.1. Enpresa edo erakunde esleipendun bakoitzak pertsona bat izendatuko du kontratuaren gauzatzea gainbegiratzeko eta jarraipena egiteko. Pertsona hori izango da enpresa edo erakunde esleipendunaren eta Haurreskolak Partzuergoko Formazioa eta Hezkuntza Laguntza zerbitzuaren arteko solaskidea.

8.2. Talderen bat osatuko ez balitz, Haurreskolak Partzuergoak hasiera data atzeratzea edo ikastaroa baliogabetzea erabaki dezake.

8.3. Ikastaro osoan zehar, **berdintasuna genero ikuspegitik zehar lerro bezala garatu beharko da**. Horretarako baldintzak edo aukerak dauden heinean, erabilitako materialek genero ikuspegitik berdintasuna bermatuko dute.

8.4. Enpresa edo erakunde esleipendunak Haurreskolak Partzuergoaren gidalerroei jarraituko die ikastaro bakoitzean parte hartzen duten pertsonen kopuruari dagokionez (30). Ikastaro bat egin ahal izateko, gutxienez 20 pertsona izan beharko ditu; bestela, Haurreskolak Partzuergoak ikastaroa egiteko edo baliogabetzeko aukera baloratuko du.

8.5. Enpresa edo erakunde esleipendunak ikasturtean zehar behar den material didaktiko guztia emango die prestakuntza-jardueran parte hartzen duten pertsona guztiei.

8.6. Prestakuntza ekintzak, kontzeptu teorikoen ikaskuntzan eta ekintza praktikoetan sakondu beharko du, beti ere hezitzaileek lan egiten duten lan taldea zein den kontutan hartuz, hau da, 0-2 urte arteko haurrak, Haurreskolak Partzuergoko marko teorikoaren barruan eta bere hezkuntza printzipioak errespetatuz.

8.7. Enpresa edo entitate esleipenduna Haurreskola Partzuergoko Formazioa eta Hezkuntza Laguntza Zerbitzuaren arduradun direnekin bildu beharko da behar den guztietan. Bilera hauek, Haurreskola Partzuergoko egoitzan burutuko dira.

8.8. 2024/2025 ikasturtean egindako prestakuntza-jarduerak amaitzean, enpresa edo erakunde bakoitzak jarduera horien MEMORIA deskribatzailea aurkeztuko du Haurreskolak Partzuergoaren egoitza sozialean.

8.9. Enpresa edo erakunde esleipendunek hilabeteko epea izango dute, kontratua amaitzen denetik, Haurreskolak Partzuergoko Formazioa eta Hezkuntza Laguntza Zerbitzuan honako hauek aurkezteko: prestakuntza-prozesuari amaiera ematen dioten dokumentu guztiak, prozesuan erabilitako materialen kopiak, parte-hartzaileen zerrendak, aktak eta memoria, espresak eskatutako formatuan. Baldintza hori bete behar da aurkeztutako abala berreskuratu ahal izateko.

8.10. Ikastaroak ematen dituzten pertsonek eta enpresek, gainera, prestakuntzan parte hartzen duten hezitzaileek egindako lanen kopia bat eman beharko diote Haurreskolak Partzuergoari. Ikastaroa amaitu ondoren, lan horiek suntsitu egingo dituzte, eta ezin izango dituzte, baimenik gabe, jardueratik kanpo erabili. Horiek erabili ahal izateko, egin duen hezitzailearen idatzizko baimena beharko dute.

8.11. **Ezingo da haurreskolako haurren argazkirik hartu edo irudirik grabatu prestakuntza-jarduera hau gauzatzeko.**

9. LIKIDAZIO EKONOMIKOA

Ordainketa partzialak honako aldizkakotasun honekin egingo dira:

- Lote bakoitzaren % 50 2024ko abenduan.
- Gainerakoa, zati proportzionaletan, 2025eko urtarriletik 2025eko ekainera, hilabetea amaitzean, egindako prestazioekin bat datorren faktura aurkeztu ondoren eta nahitaezko entregaren egiaztagiriak jaso ondoren, Preskripzio Teknikoen Pleguko 9. puntuan jasotzen den bezala.

Haurreskolak Partzuergoak behar bezala egin diren ikastaroak bakarrik ordainduko ditu.

10.- GAINBEGIRATZE ETA KONTROL AHALMENAK

Haurreskola Partzuergoak, egiten diren lanen gainbegiratze eta kontrol ahalmenak erreserbatuko ditu, horretarako esleipendun enpresek beharrezko lankidetza eskainiaz.

Baldintza hauen onarpena beharrezkoa izango da, dagozkion ordainketak jaso ahal izateko.

11.- KONFIDENTZIALTASUNA

Haurreskolak Partzuergoaren informazioa kontratu honen exekuziorako desberdinak diren helburuekin erabiltzea guztiz debekatuta dago, hauek kopiatu edo errepikatuko ez dituela hitzemango du enpresa esleituak eta kontratua xede diren lanak direla eta eskuratu izan dezakeen datuak sekretuan gordeko ditu.

Era berean, aurreko paragrafoan aipatutako datuak informatizatuak izan edo izango badira, hauetarako sarbidea, indarrean dagoen legediaren arabera, kontrolatuta mantentzera behartzen da enpresa esleitua.

12.- DATUEN BABESA

Izaera pertsonala duten datuen babeserako araudiaren arabera, Haurreskolak Partzuergoa da tratamendu jardueren erantzulea. Erakunde kontratugileak, tratamenduaren erantzulea denez, bakar-bakarrik kontratuaren xederako erabiliko ditu datu pertsonalak.

Erakunde kontratugileak ez die inoiz hirugarren pertsonei edo alderdiez besteko erakundeei daturik komunikatuko, erakutsiko, utziko edo ezagutaraziko, ezta horiek zaintzeko ere. Era berean, ez da ahalbidetzen hirugarrenen azpikontrataziorik izaera pertsonala izan eta Haurreskolak partzuergoak eskatutako tratamenduak egiteko, ez bada aurrez horretarako baimena lortu izan eta, betiere, tratamenduaren azpikontrataziorako harreman juridikoak honako harreman juridikoaren baldintza berberetan agintzen badira.

Erakunde kontratugileak sekretua gorde beharko du, baita zerbitzua ematearen esparruan eskuratutako informazioaren konfidentzialtasuna ere.

Erakunde kontratugileak datu pertsonalak mantendu eta zaintzeko baimena jaso badu, harreman juridikoa bukatzean, datuok suntsitu egin beharko ditu, baita datuon euskarri edo dokumentu oro ere, datuen edo materialaren kopiarik gorde gabe.

Tratamendua egingo duen erakundeak ezarriko ditu Haurreskolak Partzuergoak bere eskura jarritako datu pertsonalak era egokian kudeatu, artxibatu eta aurkitzeko beharrezko diren irizpideak eta prozedurak, pertsona interesatu eta legitimatuek euren eskubideak erabiltzea eskatuko balute ere. Dena den, tratamendua egiteko ardura duen erakundeak ez ditu zuzenean erantzungo Haurreskolak Partzuergoaren titularitatekoak eta erantzukizunekoak diren datu pertsonalen inguruko eskubideak baliatzeko eskaerak.

Erakunde kontratugilearen ardura izango da mota fisiko, logiko eta antolaketa mailako segurtasun neurriak ezartzea, datuen babeserako egungo araudia betez, zerbitzua ematean eskuratutako izaera pertsonaleko datuak babesteko.

Edonola ere, tratamendu sistema eta zerbitzuen isilpekotasuna, osotasuna, erabilgarritasuna eta erresilientzia iraunkorra bermatu beharko dira, datu pertsonalak era azkarrean eskuratu eta erabiltzeko moduan egongo direla ahalbidetuz, gorabehera fisiko edo teknikoren bat gertatuta ere. Era berean, tratamenduaren segurtasuna bermatzeko abiarazitako neurri tekniko eta antolamenduzkoen eraginkortasuna erregulartasunez egiaztatzea, ebaluatzea eta baloratzea ere ahalbidetu beharko da. Tratamenduaren arduradunak eskubidea dauka kontratua indarrean dagoen denboran beharrezko ikusten dituen segurtasun jarraibideak eta neurriak abian jarri eta inplementatzeko.

Haurreskolak Partzuergoak erakunde hornitzaileen kontratazioaren kudeaketako eta pertsonaleko esparruko datuak tratatzen ditu, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen araberako kontratazioa era zuzenean garatu eta exekutatzen dela kontrolatzeko. Datu pertsonalak gai horretan eskumena duten organo judizialei eta epaitegiei nahiz Administrazio Publikoei jakinarazi ahal izango zaizkie eta Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu. Interesa duten pertsonek datuok eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko, mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabil ditzakete honako bideak baliatuz: Partzuergoko zuzendaritzari edo dbo-dpd@haurreskolak.eus posta elektronikora idazkia bideratuta. Bestalde, datuen babeserako Politikari buruzko informazio gehiago izateko www.haurreskolak.eus helbidera jo daiteke.

ERANSKINAK: FITXAK

1. Lotea: ESPLORAZIOA ETA AUTONOMIA
Ikastaroa: "Esplorazioa eta autonomia lehen haurtzaroan: jolasa eta bidelaguna"

Ikastaro kopurua: 17
Ordu kopurua: 25 (ikastaro bakoitzeko)
Plaza kopurua: 30 (ikastaro bakoitzeko)
Hizkuntza: Euskara
Formatua: Online
Aldia: abendua-maiatza

Haurraren gaitasunak:
- Miaketa autonomorako gaitasuna garatzea.
- Trebetasun motorrak eta kognitiboak hobetzea jolasaren bidez.
- Beren buruarekiko konfiantza eta segurtasuna indartzea.

Hezitzailearen gaitasunak:
- Autonomia sustatuko duten espazioak diseinatzeko eta antolatzeko trebetasuna.
- Miaketa eta jolas librea sustatzeko teknikak ezagutzea.
- Haur bakoitzaren garapena errespetuz behatzeko eta laguntzeko gaitasuna.

PROGRAMA:

Helburuak:
- Lehen haurtzaroan miaketa eta autonomia sustatzea.
- Jolasa eta ikaskuntza autonomoa erraztuko duten inguruneak diseinatzea.
- Haur bakoitzaren garapen indibidualean bidelagun izatea eta behatzea.

Edukiak:
- Jolasguneen diseinua:
  - Esplorazio autonomoa sustatuko duten espazioak diseinatzeko eta antolatzeko oinarrizko printzipioak.
  - Espazioak haur bakoitzaren interes eta beharretara egokitzea.

-Joko autonomoa sustatzea:
  - Jolas librea eta sortzailea sustatzeko funtsezko estrategiak.
  - Miaketa eta ikaskuntza autonomoa errazten duten funtsezko materialak eta baliabideak.

-Errespetuz bidelagun izatea:

  - Haurren garapen indibidualean errespetuz bidelagun izateko teknikak.
  - Jolasa behatzearen eta gutxieneko esku-hartzearen garrantzia.

Metodologia:
– Ikasturte hasierako aurkezpen-saioa, gutxienez, zuzeneko online saio bidez egingo da, plataformaren funtzionamendua, ikastaroaren aurkezpena, tutorea eta ikaskideak ezagutzeko.
– Parte-hartzailea eta aktiboa izango da.

– Haur-eskolaren errealitatera egokitutako teoriak eta praktikak konbinatzea.
– Dokumentazioa eta lan-proposamenak online egongo dira eskuragarri. Parte-hartzaileen jarraipena eta ebaluazioa egingo da.

Ebaluazioa:
Etengabeko ebaluazioa izango da. Helburu orokorren lorpen-maila, edukien egokitzapena, ikastaroaren antolaketa, erabilitako materialak, hobekuntza-proposamenak, hezitzaileen parte-hartzea eta gogobetetze-maila, ikasturtean egindako jarduerak eta amaierako proiektua hartuko dira kontuan. Aplikagarritasuna.

Oharrak: Haurreskolak Partzuergoko hezitzaileek 0-2 urte bitarteko haurrekin eta haien familiekin egiten dute lan.

2. Lotea: KOMUNIKAZIOA ETA HARREMANAK

Ikastaroa: **"Komunikazioa eta emozioak Haurreskolan: ingurune osasungarri baterako estrategiak"**
Ikastaro kopurua: 17
Ordu kopurua: 25 (ikastaro bakoitzeko)
Plaza kopurua: 30 (ikastaro bakoitzeko)
Hizkuntza: Euskara
Formatua: Online
Aldia: abendua-maiatza

Haurraren gaitasunak:

- Komunikazio eraginkorreko trebetasunak garatzea.
- Emozioak ezagutzeko eta adierazteko gaitasuna.
- Lotura afektibo seguruak sortzea hezitzaileekin eta lankideekin.

Hezitzailearen gaitasunak:

- Eraginkortasunez eta enpatiaz komunikatzeko trebetasuna.
- Gelan emozioak kudeatzeko estrategiak ezagutzea.
- Ingurune emozionalki segurua eta osasungarria sortzeko gaitasuna.

PROGRAMA:
Helburuak:

- Hezitzaileen, haurren eta familien arteko komunikazioa hobetzea.
- Eskola-ingurunean emozioak kudeatzeko estrategiak garatzea.
- Haurreskolan giro emozionalki osasungarria sortzea.

Edukiak:

- **Hezitzaileen arteko komunikazioa:**
  - Komunikazio eraginkor eta asertiboko estrategiak hezkuntza-taldean.
  - Gatazkak konpontzeko eta erabakiak taldean hartzeko teknikak.
  - Lankideen arteko lankidetza- eta laguntza-giroa sustatzea.
- **Familiekiko harremana:**
  - Familiekiko komunikazio irekia eta errespetuzkoa ezartzeko teknikak.
  - Familiak seme-alaben hezkuntza-prozesuan eta garapen emozionalean inplikatzeko estrategiak.
  - Egoera zailak maneiatzea eta familiekin gatazkak konpontzea.
- **Haurrekiko interakzioa:**
  - Haurrekin entzute aktiboko eta ez-hitzezko komunikaziorako trebetasunak garatzea.
  - Haurren emozioen adierazpena eta erabilera sustatzeko estrategiak.
  - Haurren garapen emozionala eta soziala sustatuko duen ingurune seguru eta afektibo bat sortzea.

Metodologia:

– Ikasturte hasierako aurkezpen-saioa, gutxienez, zuzeneko online saio bidez egingo da, plataformaren funtzionamendua, ikastaroaren aurkezpena, tutorea eta ikaskideak ezagutzeko.
– Parte-hartzailea eta aktiboa izango da.
– Haur-eskolaren errealitatera egokitutako teoriak eta praktikak konbinatzea.
– Dokumentazioa eta lan-proposamenak online egongo dira eskuragarri. Parte-hartzaileen jarraipena eta ebaluazioa egingo da.

Ebaluazioa:
Etengabeko ebaluazioa izango da. Helburu orokorren lorpen-maila, edukien egokitzapena, ikastaroaren antolaketa, erabilitako materialak, hobekuntza-proposamenak, hezitzaileen parte-hartzea eta gogobetetze-maila, ikasturtean egindako jarduerak eta amaierako proiektua hartuko dira kontuan. Aplikagarritasuna.

Oharrak: Haurreskolak Partzuergoko hezitzaileek 0-2 urte bitarteko haurrekin eta haien familiekin egiten dute lan.

3. Lotea: PEDAGOGIA BERRITZAILEAK

Ikastaroa: "Haurreskolan aplika daitezkeen pedagogia berritzaileak esploratzen"
Ikastaro kopurua: 16
Ordu kopurua: 25 (ikastaro bakoitzeko)
Plaza kopurua: 30 (ikastaro bakoitzeko)
Hizkuntza: Euskara
Formatua: Online
Aldia: abendua-maiatza

Haurraren gaitasunak:
- Trebetasun kognitiboak eta sozialak garatzea pedagogia berritzaileen bidez.
- Hezkuntza-jardueretan aktiboki eta sormenez parte hartzeko gaitasuna.
- Pentsamendu kritikoa indartzea eta gatazkak konpontzea.

Hezitzailearen gaitasunak:
- Haur-hezkuntzan aplika daitezkeen hainbat pedagogia berritzaile ezagutzea.
- Gelan metodologia berriak ezartzeko trebetasuna.
- Praktika pedagogikoak ebaluatzeko eta haurren premia indibidualetara egokitzeko gaitasuna.

PROGRAMA:
Helburuak:
- Haurreskolan pedagogia berritzaileak esploratzea eta aplikatzea.
- Metodologia pedagogikoak haurren premia indibidualetara egokitzea.
- Praktika pedagogiko berrien eraginkortasuna ebaluatzea.

Edukiak:
- **Pedagogia berritzaileen sarera:**
  - Pedagogien oinarrizko kontzeptuak eta printzipioak, hala nola Montessori, Reggio Emilia, besteak beste.
  - Pedagogia horien aplikazio praktikoa Haurreskolaren testuinguruan.
- **Pentsamendu kritikoa eta sortzailea garatzea:**
  - Pentsamendu kritikoa eta sormena txikitatik sustatzeko estrategiak.
  - Parte-hartze aktiboa eta esplorazio sortzailea sustatzen duten jarduerak eta baliabideak.
- **Berrikuntza ebaluazioan eta atzeraelikaduran:**
  - Haurren lorpenak/garapena eta ikaskuntza ebaluatzeko metodo berritzaileak.
  - Atzeraelikadura konstruktiboaren garrantzia haurren garapenean.
- **Familiekiko eta ikaskomunitatearekiko lankidetza:**
  - Familiak pedagogia berritzaileen aplikazioan inplikatzeko estrategiak.
  - Ikas-komunitatearekiko lankidetza eraginkorra sustatzea.
- **Metodologia:**

– Ikasturte hasierako aurkezpen-saioa, gutxienez, zuzeneko online saio bidez egingo da, plataformaren funtzionamendua, ikastaroaren aurkezpena, tutorea eta ikaskideak ezagutzeko.
– Parte-hartzailea eta aktiboa izango da.
– Haur-eskolaren errealitatera egokitutako teoriak eta praktikak konbinatzea.
– Dokumentazioa eta lan-proposamenak online egongo dira eskuragarri. Parte-hartzaileen jarraipena eta ebaluazioa egingo da.

- **Ebaluazioa:**
  Etengabeko ebaluazioa izango da. Helburu orokorren lorpen-maila, edukien egokitzapena, ikastaroaren antolaketa, erabilitako materialak, hobekuntza-proposamenak, hezitzaileen parte-hartzea eta gogobetetze-maila, ikasturtean egindako jarduerak eta amaierako proiektua hartuko dira kontuan. Aplikagarritasuna.

- **Oharrak:** Haurreskolak Partzuergoko hezitzaileek 0-2 urte bitarteko haurrekin eta haien familiekin egiten dute lan.